ATEJOKA005
URTARRILA ENERO JANVIER 2009

XABIER RETEGI

# "Gizarte antolakuntzako egitura guztiz berdinekin bizi gara, aldaketa teknologikoarekin ezer gertatu ez balitz bezala"



*Xabier Retegi ibilbide luzeko pertsona da. Hezkuntza eta industria arloetan garatu ditu batez ere bere dohainak, sektore pribatu eta publikoan. Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailburua izan zen Eusko Jaurlaritzan; baita Hezkuntza Sailburuordea ere. Eta Mondragon Unibertsitatearen lehen Errektorea izan genuen. Azken sei urteotan Eusko Ikaskuntzaren Lehendakaria izan da. Joan den abenduan utzi zuen Eusko Ikaskuntzako Lehendakaritza, sei urtez erakundearen buru izan ondoren.*

**Eusko Ikaskuntzako lehendakaria izateaz gain, Innobasqueko gizarte alorreko lehendakari hautatu zintuzteten 2007an. Zein izango da Xabier Retegiren eginkizuna organo horretan?**
Eusko Ikaskuntzatik askotan esaten genuen gure herriak lidergoaren beharra duela, zeren hemen funtzionatzen duten erakunde atomizatuen multzoa kontuan harturik, gizartean gertatzen ari diren aldaketen aurrean, ezin baitugu gizartea aldatzen hasi nork bere irizpide eta ideiekin. Gizartean liderra izango dena behar dugu. Horrenbestez, Innobasquen lidergoa dago, argi eta garbi. Bertan, gizarte aldaketarekin zerikusia duten gure herriko erakunde nagusiak ordezkaturik daude.

**Gizarte berrikuntzaren inguruan bizi garen anabasa guzti honetan, ideia garbia izan nahiko nuke horren esanahiaz.**
Gaur egun, berrikuntzaren beste kontzeptu bat sartzen ari da, benetan iraultzailea dena: pertsonak dira berrikuntzaren iturria, berritu egiten dutenak. Pertsonaren jarrera bat da berrikuntza, garatuz doazen elementuak etengabe eztabaidan jartzen dituena. Horrenbestez, gizarte berrikuntzaren kontzeptuan sinesten dut nik, pertsonengan zentratua dena, pertsonak hartzen baitira berrikuntzaren iturri eta jatorritzat, alor guztietan eta organizazio mota guztietan.

**Ez duzu uste berrikuntza teknologikoa, aplikazio hutsaren ikuspuntu sozialetik, gizarte desoreka areagotzen ari dela?**
Gizarte antolakuntzako egitura guztiz berdinekin bizi gara, aldaketa teknologiko horrekin ezer gertatu ez balitz bezala. Teknologikoaren alorrean gauza gehiagotarako zabaldu ditugu mugak: ekonomia menderatzeko, kapitalak herri batetik bestera mugitzen dira ia-ia kontrolik gabe. Aitzitik, beste alderdi batzuk, hala nola desberdintasunei dagokiena, horiek gero eta handiagoak dira beti. Urgentziazkoa da kontuzko gizarte mugimenduak sortuz joatea, desoreka egoera mota horiei erantzutearren. Horrenbestez, nik ez nioke galgarik emango zientziari, baina motorra jarriko nieke gizarte mugimenduei. Azelerazioa jarriko nieke gizarte zientziei, gizarte antolakuntzari eta justizia sozial askoz handiagoaren eskakizunari.

**Duela gutxi zure ideia bat irakurri ahal izan dugu: "Esentzialismoen aurrean, proiektu integratzaileak".**
Nire ustez, esentzialismoa, batez ere herri baten kontzepzioaren etorkizunari begira, ondoko honetan datza: "Gure herriak esentzia, izaera eta historia bat dauka". Egitate hori totem bat bihurtu dugu, balio absolutua bailitzan, eta hori oinarri harturik, kontzepzio batez, dogma batzuen bidez eta dogma horiek interpretatzen dituen klase baten bidez etorkizuna aztertzeari ekiten diogu, halako eran non dogma horietan sartzen ez dena, bazterturik geratzen den nazio edo herri baten eta bere historiaren kontzepzioa izan daitekeen horretatik. Bizikide ditugunekin beste proiektu batean pentsatzen hastea izan daiteke beste planteamendu bat, eta ez hainbeste izatea, baizik eraikitzea, herri modernoago bat eraikitzea, teknikoki aurreratua eta denok elkarturik sentituko garen herri bat, gizartearen aldetik koherente eta integratzaile izango den herri bat. Eraikitze eta integratze proiektua, esentzialismoaren kontzeptuaren aurkakoa. Dogmarik gabeko proiektu bat.

**Horrek esan nahi du 'Estatu-Nazioa' lehertu egiten dela.**
Estatua definitzea baino areago gizarte berri hori eraikitzeak kezkatzen nau ni. Simil batez esanda, sortzen ari den ume bati jarri behar diogun janzkiaz ari gara eztabaidatzen, eta haurra hil dadin arriskua dago, zertaz jantzi behar dugun eztabaidan ari garela. Hortaz, lehenik eraiki dezagun euskal komunitate bat, ekonomiaren aldetik aurreratua, gizartearen aldetik aurreratua eta munduko eskualde aurreratuenen artean kokatzeko gai izango dena, eta gero erabakiko dugu nolako molde juridikoa eman behar diogun denok arduradun sentitzen garen entitate horri. Gizarte aurreratu hori eraikiz gero, 'janzkia' egiteko moduan izango gara. Gaur egun, erkidego honi era askean, autonomiaz, indarrean lan egiten uztea da eskatuko nukeen gauza bakarra, eta orobat gure gizarteak erabakimena izatea.

Josemari Velez de Mendizabal

**Elkarrizketa osoa hiru hizkuntzatan:**
www.euskonews.com/0466zbk/
La entrevista completa está disponible en euskera, castellano e inglés en la dirección mencionada.

Lucía Lahoz

# La imagen de la mujer en el mundo medieval

El papel de la mujer en el mundo medieval nos ha llegado desdibujado. Referida como voz de silencio, su personalidad queda difuminada, acogida en el interior del hogar, en la distancia de la jerarquización de la familia y en una actitud más pasiva que activa en la vida pública. En realidad, como expresión pública, el legado es escaso, salvo casos excepcionales, porque es difícil el protagonismo de la mujer cuando existe un marido, un padre, un hermano en un mundo de hombres. La mujer se encuentra replegada sobre sí misma y no hay expresión escrita que ofrezca con objetividad y amplitud la intimidad de su ser, de su forma de pensar. Además cuando existen noticias o imágenes sólo abarcan estratos sociales determinados muy concretos y figuras poco representativas de común femenino. Es ese mundo tan dispar el que las artes plásticas permiten adivinar y deducir, dejando traslucir la realidad cotidiana, incrementando con creces las magras descripciones en la historia. Se trata de aprovechar “las múltiples posibilidades de las imágenes como fuente histórica y como recurso para escribir la historia” (Manzin).

Las manifestaciones artísticas constituyen, quizás, el mejor comentario de la historia. De todos modos las obras de arte no pueden resucitar un pasado pero sí darnos una “imagen” de éste, una idea y tal vez su esencia. El interés reside en facilitar la posibilidad de un conocimiento más cercano de su realidad ya que la imaginería artística refleja propuestas femeninas en diversas circunstancias. El análisis de los rasgos iconográficos de las mujeres medievales aporta efectos de contraluz, de bruma o de crepúsculo, ángulos de vista insólitos y reveladores de los que se desprende una rica información no siempre tenida en cuenta y que afecta a todos los ámbitos. La iconografía nos muestra a la dama en el marco privado, a la mujer activa en una esfera pública, desempeñando un cometido religioso o también entretenida en una labor profana; imágenes unas henchidas de un sentido negativo o, por el contrario, con una simbología positiva. De hecho la imagen femenina que nos ofrecen las obras de arte trae implícitas connotaciones religiosas, legislativas, médicas, sociales, políticas. “El estudio de las imágenes puede brindar una contribución al estudio histórico de la sociedad del pasado a condición, no obstante, de reconocer la especificidad del dominio de la expresión visual y el carácter siempre problemático entre la obra y su entorno” (Baschet).

Se notará el carácter elitista de la mayor parte de los empeños, muchos corresponden a la cúspide social y las conclusiones no son extrapolables al común, no son generalizables. Uno de los males que afecta a parte de la historiografía de género es estar excesivamente fiada de patrones feministas, que si bien la teoría feminista ha sensibilizado y contribuido al estudio del papel de la mujer, aplicar sus presupuestos a la historia medieval es anacrónico y desvirtúa las conclusiones. “Hay que utilizar los códigos idiomáticos de la sociedad donde se gestaron para que nos hablen las obras de una época lejana” (Pächt).

El análisis de esos iconos ofrece una doble lectura, que ilustra precisamente la ambigüedad de los mismos. La imagen de la mujer que ofrecen la obras, muchas veces elaboradas por hombres, no son una información inocente sino que ya son de por sí una interpretación de la condición femenina. “Las ideas sobre las mujeres se formaron de una parte por los clérigos normalmente célibes y de la aristocracia” (Power). A lo que se añade la condición religiosa de la mayor parte de las manifestaciones artísticas. En este sentido, en el románico y bajo la férula de Cluny a la mujer se le asigna un papel negativo, encarna los peores vicios o en el mejor de los casos queda reducida a objeto de seducción. Pasado el tiempo y con el desarrollo de la ciudad en la Baja Edad Media la mujer comienza a adquirir una condición más relevante, figurando plásticamente en su cotidianidad e, incluso, como personificación de virtudes. Situación de por sí clarificadora. En esa ambigüedad también está la imagen que las mujeres ofrecen de sí misma, unas veces de manera espontánea y otras mediatizadas a través de una educación dirigida por hombres. Dentro de la iconografía femenina la literatura artística distingue entre las protagonistas de la historia (reinas, santas, nobles) y la masa coral; de la combinación de ambas informaciones se extrae una visión y una idea más ajustada de aquella realidad, reconstruida con piedras auténticas, que no es poco.

## Paperetik sarera

www.euskomedia.org







Antxon Aguirre

### Laboa, Ispizua, erraldoiak eta txotxa

1999ko apirilean, *Euskonews* aldizkariak Mikel Laboa elkarrizketatu zuen kantautorearen ihardunbidea berrikusteko asmoz, haren 65 urte betetzeko bezperetan. Hizketaldiaren amaiera gisa, kazetariak galdetu zuen: “Zer eskatzen dio Mikel Laboak bizitzari?”. Eta abeslari donostiarrak erantzuten du “Bakoitzak zerbait egiteko gaitasun bat dugu, eta nik hori eskatzen diot bizitzari; egiten dudan hori ongi egitea, alegia. Ni agian medikuntzara dedikatu izan banintz, orain diru gehiago edukiko nukeen, baina kantagintzara dedikatu naiz. Gizasemeak oso problematikoak gara eta nahi duzuna modu egokian burutzea, ez da bat ere erraza izaten”. Hitz horiek Mikel Laboaren bizitzaren filosofia hura noraino izan zen zuzena eta utzitako ondare gaitza balioesten laguntzen digute.

Pedro de Ispizua, horra XX. mendeko beste sortzaile handi bat. Arkitektoa zen eta, garaian boladan zegoen joera razionalistari atxikia, berak eginak dira gerraurreko Bilbo haren adierazgarriak diren hainbat eraikin, hala nola Areatzako kioskoa, Luis Briñas eskola, Loruri edo Erriberako Merkatua. Azken eraikin horren zertarakoari buruzko eztabaida eta Madrilgo Reina Sofía Museoan GATEPAC –kideetakoa izan zen Ispizua– taldeari buruz berriki egindako erakusketa direla eta, arkitektoari eskainitako hiru testu bikain bildu dira www.euskomedia.org web orriko Atejoka leihoan.

Badu mende eta erdi ia-ia Iruñeko Erraldoiak eta Buruhandiak Konpartsak alaitzen dituela hiriko jaiak. Alabaina, azken abenduan baizik ez du lortu bere duintasunari dagokion kokagunea: antzinako autobus geltokia, non urte osoz bisitatu daitezkeen handikote horiek. Atejokan ospatu egiten dugu gertaera hori 1916ko jaietako bi argazki bilduz eta erraldoi eta buruhandiak egiten dituen *Aitatxarka*, Iruñeko enpresari buruzko erreportajea agerraraziz.

Sagardo denboraldi berriaren hasiera markatzen du urtarrilak. Gai horri eskainitako *Euskonews*eko monografiko bat berreskuratzeko une egokia. Era askotako zortzi artikuluk eta elkarrizketa batek osatzen dute monografia. Eta osagarri historiko gisa, Jorge Pérez Calvoren *La imagen de Euskal Herria a ojos de los peregrinos* artikulua, hainbat bidaiariren lekukotasunak biltzen dituena, hala nola duela bost mendeko hau: “Cultivan un vino que llaman sidra, el cual se bebe en su mayoría por la gente de la región; es claro, bueno, blanco y con un poco garbo, sano para quien está acostumbrado, pero difícil de digerir y molesto al estómago de quienes no lo están”.

Karmele Salaberría, Susana Rodríguez, Soledad Cruz

# De lo físico a lo importante



Cada cultura y cada momento histórico define un ideal de belleza, reflejo de una forma de sentir y un modo de vida muy concreto que se ha visto modificado a lo largo del tiempo. Durante los siglos XVII y XVIII por ejemplo, la gordura es considerada como algo erótico y elegante, resaltando de forma notable el papel maternal de la mujer. En consecuencia, durante esta época la idea de una mujer hermosa se personifica en una matrona rolliza dotada de grandes senos. Esta tendencia proclive a la gordura continúa durante gran parte del siglo XIX. Es a finales del siglo XIX cuando el gusto por la gordura desaparece dejando paso a una estética, vigente actualmente, que valora la apariencia física delgada.

No obstante, la delgadez no es valorada de la misma forma en todas las culturas. En la población africana, por ejemplo, el estándar de belleza es flexible tanto en lo relativo a la elección de una figura ideal, plasmada en una mayor aceptación de diferentes formas corporales y pesos, como al hecho de que dicha belleza no aparece exclusivamente ligada a la forma corporal.

Con todo, en nuestra sociedad encontramos personas con apariencias físicas que se alejan de los cánones de belleza actuales pero que se sienten bien con su imagen corporal, y otras, que a pesar de ser evaluadas como bellas, presentan profundas insatisfacciones. Lo que hace necesario aclarar que apariencia física e imagen corporal son dos conceptos diferentes. Una cosa es la apariencia física (las características físicas de cada persona), y otra la imagen corporal, es decir, la representación del cuerpo que cada persona se construye en su mente. Así, la imagen corporal contiene diversos aspectos como la percepción que cada uno tiene sobre el tamaño y la silueta corporal, los sentimientos y emociones que despierta esta percepción a nivel individual, y las conductas que se derivan como resultado.

Las alteraciones de la imagen corporal pueden concretarse en dos aspectos, por un lado, alteraciones cognitivas y afectivas, es decir, profundas insatisfacciones con el cuerpo y sentimientos negativos hacia él y, por otro, alteraciones perceptivas que conducen a estimaciones incorrectas del cuerpo, de su tamaño y su forma.

En nuestra sociedad, las alteraciones de la imagen corporal se han convertido en un fenómeno normativo que a diferentes niveles afecta a la mayoría de la población. Sobre todo en la población femenina, pocas mujeres se muestran satisfechas con su cuerpo y una gran mayoría sobreestima zonas corporales (sobre todo las relativas a la parte inferior). Sirva como prueba el ingente mercado existente alrededor de la "belleza" y la alimentación: centros de adelgazamiento, tratamientos cosméticos, cirugía reparadora, anticelulíticos, etc.

Cuando la insatisfacción corporal y la distorsión perceptiva de la imagen corporal sobrepasan determinados límites, ocupando la mente de una persona con intensidad y frecuencia, generando malestar e interfiriendo negativamente en su vida cotidiana, es cuando se habla de un trastorno de la imagen corporal.

Dentro de los trastornos se incluyen patologías como los trastornos de alimentación, la dismorfofobia y la vigorexia, que cursan normalmente con cuadros clínicos de depresión, problemas de autoestima, ansiedad social e inhibición y disfunción sexual, entre otros.

Desde la intervención psicológica se considera que el verdadero problema no está en la apariencia exterior, sino en la vivencia subjetiva del cuerpo. El aspecto físico exterior puede no cambiar, pero sí la vivencia subjetiva del cuerpo. Desde un punto de vista psicológico se trabaja en la aceptación del propio cuerpo y en la modificación de los patrones alterados de pensamiento, emoción y comportamiento. En definitiva, a favor de la comprensión de que lo físico no es lo único importante. El tratamiento psicológico no puede cambiar el aspecto externo, pero sí ayudar a aceptar el cuerpo y a vivirlo de un modo más satisfactorio.

"Percepción de la imagen corporal"
En: *Osasunaz. Cuadernos de Ciencias de la Salud, 8*, 2007. Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007.
Edición virtual: http://www.eusko-ikaskuntza.org/eu/publicaciones/colecciones/cuadernos/-articulo.php?o=17002

## Gertatu zen









## Eusko Ikaskuntza:

### I. urtea
### Año I
### Année I

1919ko abenduaren 4an, Gipuzkoako Aldundi Jauregian, Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorraren lehen ohiko bilera egin zuten. Hala, urte berriaren hasierarekin batera abiatu zen berriki sorturiko Elkartearen iharduera.

**Izena eta egoitza**
"Euzko-Ikaskuntza" euskaraz, "Sociedad de Estudios Vascos" gaztelaniaz. Hori izan zen abenduaren 22ko batzar eratzailean hitzarturiko izena. Egoitza sozialari dagokionez, Leoncio Urabayen eta Claudio Armendariz Batzordeko nafar kideek "oraingoz Donostian finkatzea" proposatu zuten, lau euskal hiriburuetan hura baitzen erdialdean eta hobekien komunikatua zegoena.

**Presupuesto de gastos**
Para su primer ejercicio, el de 1919, Eusko Ikaskuntza se fijo un presupuesto total de 36.000 pesetas. El capítulo de "Material" absorbía el mayor gasto: 8.000 pesetas, y 6.000 más el de "Cursos, conferencias y actos públicos". La Junta aprobó destinar 10.000 pesetas anuales para retribuir al Secretario, entendiendo que para el desempeño de tales funciones Ángel de Apraiz debería privarse de su cátedra y sueldo en la Universidad de Salamanca.

**'Estudios Vascos'**
Con este nombre existía ya una entidad, radicada en Bilbao, que perseguía fines análogos a los de Eusko Ikaskuntza. En 1919 pidió ser incorporada a la nueva institución a la que haría entrega "de toda su existencia en Caja, documentación y labor realizada en patronimia, toponimia y bibliografía vascas". La Junta Permanente lo agradeció profundamente.

**Premières tâches**
Les activités scientifiques prioritaires ont été le centre du débat. Quelques membres conseillèrent de réaliser une compilation bibliographique basque, bien que Julio de Urquijo suggéra que si cela se faisait, cela devrait se faire avec l'intervention de personnes spécialisées en la matière. Toutes les personnes présentes tombèrent d'accord sur « la nécessité d'entreprendre de telles tâches dans la Société, lorsque les travaux de l'organisation et de la propagande qui y sont maintenant indispensable le permettraient ».

# Ikaskuntza zaleak



**Ana Zabalza Seguín (Pamplona, 1960)**
Se doctoró en Historia por la Universidad de Navarra con una tesis sobre la gestión y las costumbres colectivas que generaban los bienes comunales durante la Edad Moderna en Navarra. Con posterioridad ha estudiado la historia de la familia durante los siglos XVI y XVII, y su onomástica: el origen y transmisión tanto de los nombres de pila como de los apellidos. En 2004 realizó una estancia en el Centro de Estudios Vascos de la Universidad de Reno (Nevada). Ha sido profesora de Historia Moderna en la UPV-EHU y en la actualidad imparte la misma materia en la Universidad de Navarra; coordina un grupo de investigación sobre ferias y mercados de Urroz-Villa.



**Jone Karres (Madrid, 1972)**
D'origine basco-allemande, après avoir grandi en Allemagne où elle étudia la Sociologie, la Littérature et les Sciences audiovisuelles et de l'Art, elle arriva à Donostia il y a trois ans avec l'intention de perfectionner l'euskera et de créer des ponts entre les cultures. Elle occupe le Secrétariat Technique de Jakiunde. Elle a travaillé comme guide touristique en Europe et en Amérique et possède une large expérience en tant que critique cinématographique. Elle fait des recherches sur des sujets d'identité, des rituels et sur la culture basque dans l'idée de pouvoir réaliser des documentaires et raconter des histoires dans une perspective sociologique.



**Maite Lakar Iraizoz (Elizondo, 1978)**
Euskal Filologian lizentziatua. Lanbidez Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakaslea da Nafarroan. Ahozko tradizioa biltzeko lagun batzuekin batera hiru beka eskuratu ditu: Bortzirietan, Malerrekan eta Baztanen. Hauek izenburuokin argitaratuta daude: *Bortzirietan aditutakoak, Malerreka solasean* eta *Baztan solasean*. Gaur egun, Euskokultur Fundazioarekin, Nafarroako Ondare ez-materialaren Artxiboa proiekturako, Nafarroako hainbat eskualdetako lekukotasun etnografiko biltzen dihardu. Horretaz gain, Pello Salabururen laguntzaile ere izan da *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia* lanean. Azken urteotan Malerrekako euskarari buruzko doktorego tesia egiten ari da.



**Anaut Frantz Patterson (Oiartzun, 1984)**
Biologia ikaslea Leioako Zientzia eta Teknologia Fakultatean (Bilbo), Bionatur-eko Presidentea (Biologoen Unibertsitate Elkartea) eta GAIAren Euskal Herriko ordezkaria (biodibertsitatearen kontserbazio eta kudeaketarako GKE). Eusko Ikaskuntzak antolaturiko *Aztarna ekologikoa, eta zuk zer egingo duzu?* proiektuaren koordinatzaile gisa aritu da. Askotariko kezka dituen gizona dugu: soroslea eta murgilaria, antzezlea teatroan (Lezoko Orratx taldea) eta telebistan ("Vaya Semanita", "Euskadi Comanche", "Goazemank", "Goenkale"...), DYA eta Gurutze Gorriko boluntarioa, era berean nazioarteko mailako lan solidarioetan konprometitua dago.

# Argitalpenak



## Participación ciudadana, patrimonio cultural y museos

Autor: Arrieta Urtizberea, Iñaki (ed.)
Bilbao: UPV-EHU, 2008
190 p. ; 24 cm
ISBN: 978-84-9806-129-9

Un principio en el que incide la Nueva Museología es el de la participación ciudadana en los proyectos museísticos y patrimoniales. Teóricamente ello está asumido pero en la praxis su concreción resulta mucho menos evidente. Más en estos tiempos de fomento del individualismo, de consumo compulsivo, de espectacularidad, de simplicidad y de lo efímero. A partir de casos concretos, los actores de esta publicación describen y analizan los límites, las potencialidades y las posibilidades de participación ciudadana en los ámbitos museístico y patrimonial.



## Eliza Legazpiko Historian / La Iglesia en la Historia de Legazpi

Egilea: Prada Santamaría, Antonio
Legazpi: Udala, 2008
310 or. : ir. ; 25 cm
ISBN: 978-84-606-4651-8

Legazpik hiribildu titulua lortu izanaren laugarren mendeurrenaren kariaz argitaraturiko ikerlan baten laburpena besterik ez da argitalpen hau. Antonio Prada Historian doktoreak egina, euskal eta nafar klero sekularraren espezialista handiak hainbat liburu eta artikulu ugari eskaini dio gai horri. Bikain argitaraturiko obra honek urteetan zehar legazpiar elizaren bereizgarri izan diren alderdiak berrikusten ditu, harik eta 1862an, Gasteizko elizbarrutia sortu-eta, Iruñeko eliz barrutitik banatu zen arte.



## Scientia in Vasconia. Ochenta biografías de científicos e ingenieros vascos

Autor: Anduaga Egaña, Aitor
Donostia: Ttarttalo, 2008
281 p. : il. ; 24 cm
ISBN: 978-84-9843-3

El investigador, doctor en Ciencias Físicas y licenciado en Filosofía Aitor Anduaga ha recopilado las biografías de ochenta científicos e ingenieros vascos que, entre los siglos XVI-XX, contribuyeron activamente a los avances de su época. *Scientia in Vasconia* incluye además en un capítulo una visión panorámica de los científicos, instituciones y acontecimientos relacionados con la ciencia y la técnica en Euskal Herria, síntesis que ayuda a contextualizar y situar los logros científico-técnicos desde una perspectiva comparativa e histórica.



## Estarta y Ecenarro, "Sigma". 80 años de historia, 1914/1995

Autor: Urdangarin, Carmelo
Edición del autor, 2008
167 p. : il. ; 20 cm

Estarta y Ecenarro fue la primera empresa española de máquinas de coser, con la firma SIGMA, al mismo tiempo que una destacada productora de máquina-herramienta. El economista Carmelo Urdangarin, cuya vida profesional ha estado vinculada a la máquina-herramienta y profundo conocedor de la economía española y vasca del siglo XX, describe el nacimiento, auge y caída de la empresa de Elgoibar que vivió azotada por los vientos de la historia desde el final de la I Guerra Mundial hasta la incorporación a la Unión Europea a la que no supo adaptarse.

ATEJOKA 005
URTARRILA ENERO JANVIER 2009

ASMOZ TA JAKITEZ EUSKO IKASKUNTZA

**Argitaratzailea**
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA.

**Argitalpen Idazkaria**
Eva Nieto

**Argazkiak**
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa eta 3digitala.com

**Harpidetzak**
Atejoka etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak**
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48
20007 DONOSTIA
Tel. 943-310855
Fax 943-213956
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org.

**Arabako Bulegoa**
General Alava, 5-1º
01005 GASTEIZ
Tel. 945-231552
Fax 945-148752
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

**Bizkaiko Bulegoa**
María Díaz de Haro, 11-1
48013 BILBAO
Tel. 94-4425287
Fax 94-4414650
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

**Nafarroako Bulegoa**
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D
31001 IRUÑEA
Tel. 948-222105
Fax 948-211737
iruna@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera 8:30-14 eta 15:30-17:30; ostirala, 8:00- 15:00

**Horario**
De lunes a jueves de 8,30-14 y de 15:30-17:30; viernes de 8:00-15:00

**Iparraldeko Bulegoa**
51 quai Jauréguiberry
64100 BAIONA
Tel. 559598290
Fax 559461844
baiona@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12 eta 15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.
Du lundi au jeudi: 8:30-12:00 et 15:00-18:00 et le vendredi de 8:00-12:00.

L.G.: SS-1150-2008. ISSN: 1889-0342
Fotokonposaketa: Ipar SL
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga